EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
*Gizarte Ongizateko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
*Dirección de Bienestar Social*

# GIZARTE ONGIZATEKO EUSKAL KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN AKTA/

# ACTA DEL PLENO DEL CONSEJO VASCO DE BIENESTAR SOCIAL

**(Reunión del día 18 de febrero de 2004)**
**(2004ko otsailaren 18ko bilera)**

**Dei-egilea:**
**Presidentea:** Javier Madrazo Lavin jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua.

**Convoca:**
**Presidente:** D. Javier Madrazo Lavín.-Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

**Bertaratuak:**

**Presidenteordea:** Angel Elías Ortega jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako sailburuordea

**Angel Bao Perez jauna-** Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Ongizateko zuzendaria**.**

**Montserrat Urdiales Martínez andrea.-** Idazkaria.-Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailekoa.

**Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano.-** Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratze zuzendaria.

**Juan Francisco Sandín Ramos jauna.-** Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako zuzendari nagusia.

**Begoña Gil Llanos andrea.-** EUDEL – Bilboko Udalekoa.

**Izaskun Moyua andrea.-** Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer elkartekoa

**Javier Alday Careaga jauna**
Euskal Autonomia Erkidegoko Pentsiodunen eta Erretirodunen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federaziokoa.

**Juan Carlos Sola Guzman jauna.-**
Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailekoa.

**Patxi Izulain jauna**
Gaixo Psikikoen eta euren senideen Euskadiko Federaziokoa (Fedeafes)

**Asistentes:**

**Vicepresidente:** D. Angel Elías Ortega, Viceconsejero de Asuntos Sociales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

**D. Angel Bao Pérez.-** Director de Bienestar Social.-Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

**Dña. Montserrat Urdiales Martínez.-** Secretaria. Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

**D. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano.-** Director de Inserción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

**D. Juan Francisco Sandín Ramos.-** Director General de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava.

**Dña. Begoña Gil Llanos**.- EUDEL Ayuntamiento de Bilbao

**Dña. Izaskun Moyua.-** Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

**D. Javier Alday Careaga**
Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco.

**D. Juan Carlos Sola Guzman**
Confederación Coordinadora de Disminuidos Físicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**D. Patxi Izulain**
Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares y Enfermos Psíquicos (Fedeafes).

**José Miguel Fernández jauna**
Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroa Elkartekoa.

**Miren Amilibia Urzelai andrea**
Gipuzkoako Gizarte Laneko Diplomatuen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialekoa.

**Pedro Fernández García jauna**
Urritasun psikikoa duten pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federaziokoa (Fevas)

**María Luisa Mendizabal andrea**
Euskadiko Kooperatiben Konfederaziokoa.

**Beste batzuk**

**Fernando Fantova Azcoaga jauna.-** Kontseiluaren Aholkularitza Teknikokoa.

**Iratxe Mier andrea.-** Kontseiluaren Aholkularitza Teknikokoa.

**Dorleta Goiburu Muruaga andrea-** EUDELekoa.

**Carlos E. García Martín jauna.-** Arabako Foru Aldundia.

**Honako hauek etorri ezina azaldu dute:**

**Julene Gabiola Amallobieta andrea**
ELA sindikatukoa.

**Maribi Roteta Mújika andrea.-** EUDEL – Pasaiako Udalekoa.

**Gualber Atxurra Pérez.-** EUDEL – Muskizko Udalekoa.

**Etorri ez direnak:**

**Belén Bilbao Borde andrea.-** Droga Gaietako zuzendaria.

**José Luis Madrazo Juanes jauna.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ezinduen eta Babesgabeen Laguntzako zuzendari nagusia.

**Juan Luis Fuentes jauna.-** Irse Bizkaia elkartekoa.

**Iker Larreina Vidán jauna.**
Euskadiko Gazteriaren Kontseilukoa.

2004ko otsailaren 18an, goizeko 10:15ean, hasi da bilera, eta ondokoa izan da gai-zerrenda:

**D. José Miguel Fernández**
Asociación Centro de Información de la Mujer, del Niño y la Niña.

**Dña. Miren Amilibia Urzelai**
Colegio Oficial de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de Gipuzkoa.

**D. Pedro Fernández García.-** Federación Vasca de Asociaciones a favor de personas con minusvalía psíquica (Fevas).

**Dña. María Luisa Mendizabal**
Confederación de Cooperativas de Euskadi

**Otros:**

**D. Fernando Fantova Azcoaga.-** Asesoría Técnica del Consejo.

**Dña. Iratxe Mier.-** Asesoría Técnica del Consejo

**Dña. Dorleta Goiburu Muruaga-** EUDEL.

**D. Carlos E. García Martín.-** Diputación Foral de Alava.

**Excusan su asistencia:**

**Dña. Julene Gabiola Amallobieta.-** Sindicato ELA.

**Dña. Maribi Roteta Mújika.-** EUDEL.- Ayuntamiento de Pasaia

**D. Gualber Atxurra Pérez.-** EUDEL – Ayuntamiento de Muskiz

**Ausentes:**

**Dña.- Belén Bilbao Borde.-** Directora de Drogodependencias.

**D. José Luis Madrazo Juanes.-** Director General de Atención a la Dependencia y Desprotección de la Diputación Foral de Gipuzkoa

**D. Juan Luis Fuentes.-** Irse Bizkaia.

**D. Iker Larreina Vidán**
Consejo de la Juventud de Euskadi.

La sesión dio comienzo a las 10:15 de la mañana del 18 de febrero de 2004, con el siguiente orden del día:

1. Aurreko saioko akta onartzea
2. Aholkularitza Teknikoaren aurkezpena eta Kontseiluaren lana dinamizatzeko lan-proposamenen azalpena.
3. 2003ko urtean emandako laguntzei buruzko informazioa.
4. Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuen alorrean jarduerak egiteko laguntzei buruzko 2004.erako Dekretuaren aurkezpena eta haren gaineko nahitaezko txostena.
5. Gizarte-zerbitzuetako profesionalen eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrei buruzko Dekretuaren aurkezpena.
6. Ondoko planen aurkezpena:
   - ✓ Boluntariotzako Euskal Plana
   - ✓ Immigrazioari buruzko Euskal Plana
   - ✓ Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Plana
   - ✓ Prostituzioaren inguruko Planaren proposamena.
7. Izatezko Bikoteen Legearen garapenari eta Izatezko Bikoteen Erregistroaren sorrerari buruzko informazioa.
8. Umeak (0-3 urte) haur-eskoletan dituzten familientzako laguntzen aurkezpena.
9. Haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateko Legeari buruzko informazioa.
10. Galderak eta eskaerak

1. Aprobación del acta de la sesión anterior
2. Presentación de la Asesoría Técnica y propuestas de trabajo orientadas a la dinamización del Consejo.
3. Información sobre las ayudas concedidas en el año 2003.
4. Presentación e informe preceptivo sobre el “Decreto de ayudas para la realización de actividades en el área de los servicios sociales en el País Vasco” para el año 2004.
5. Presentación del Decreto de Derechos y Obligaciones de profesionales y usuarios de los servicios sociales.
6. Presentación de los planes:
   - ✓ Plan Vasco del Voluntariado
   - ✓ Plan Vasco de Inmigración
   - ✓ Plan para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano en el País Vasco
   - ✓ Propuesta del Plan en el ámbito de la prostitución.
7. Información sobre el desarrollo de la Ley de parejas de hecho y sobre la creación del Registro de parejas de hecho.
8. Presentación de las ayudas a familias con niños y niñas en escuelas infantiles (0-3)
9. Información sobre la Ley de atención y protección de la Infancia y Adolescencia.
10. Ruegos y preguntas.

Ángel Elías Ortegak, Gizarte Gaietako sailburuorde eta Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren presidenteordeak, bertaratutakoei ongi etorria eman, eta Javier Madrazo Lavínen etorri ezina zuritu du.

Ángel Elías Ortega, Viceconsejero de Asuntos Sociales y Vicepresidente del Consejo Vasco de Bienestar Social da la bienvenida a los asistentes y excusa la ausencia de Javier Madrazo Lavín.

*1. puntua.- Aurreko saioko akta onartzea*

Emakundeko Izaskun Moyak ondoko aldaketa egitea eskatu du aurreko aktaren 8. orrialdean: esaten duenean “Emakundeko Izaskun Moyuak adierazi du........ Genero bien berdintasuna aldarrikatu du…” honako hau esan behar du “Emakundeko Izaskun Moyuak adierazi du........ sexu bien berdintasuna aldarrikatu du…”.

Ohar hori egin eta gero, aho batez onartu da aurreko saioaren akta.

*Punto 1.- Aprobación del acta de la sesión anterior*

Izaskun Moyua, de Emakunde, solicita que en la página 8 del acta anterior se haga el siguiente cambio: donde dice “Izaskun Moyua, de Emakunde, afirma……. Propugna la igualdad de oportunidades para ambos géneros….” debe decir “Izaskun Moyua, de Emakunde, afirma…..Propugna la igualdad de oportunidades para ambos sexos…”

Hecha esta observación, el acta anterior queda aprobada por unanimidad.

*2. puntua.- Aholkularitza Teknikoaren aurkezpena eta Kontseiluaren lana dinamizatzeko lan-proposamenen azalpena.*

Gizarte Ongizateko zuzendari Angel Baok hitza hartu, eta Fernando Fantova eta Iratxe Mier aurkeztu ditu, hemendik aurrera Kontseiluaren laguntza teknikoko

*Punto 2.- Presentación de la Asesoría Técnica y propuestas de trabajo orientadas a la dinamización del Consejo.*

Toma la palabra Ángel Bao, Director de Bienestar Social, para presentar a Fernando Fantova e Iratxe Mier quienes, a partir de ahora, trabajarán como apoyo

lanetan jardungo dute-eta, Kontseiluari dinamikotasun handiagoa emateko asmoz.

Fernando Fantovak 2004. urte honetan lortu nahi diren helburuak azaldu ditu, baita jarritako erronkak ere. Horien artean azpimarra daitezke:

- ✓ Kontseilua arautzen duen Dekretua aldatzea.
- ✓ Udal zerbitzuei buruzko Dekretua lantzea.
- ✓ Kontseiluak proposamen zehatzak egin ahal izatea, SIIS-ek egindako txostenetik abiatuta.
- ✓ Hirugarren sektorearen lan-egoera aztertzea.

Erronka horiei aurre egiteko, Azterlan eta Proposamenak egiteko Batzorde Tekniko Espezializatua sortzea proposatu da. Batzorde horrek egindako lana Batzorde Iraunkor Delegatura eta Kontseiluaren Osoko Bilkurara eramango litzateke. Batzorde Iraunkorra baino txikiagoko diseinua egiteko asmoa dago, batzorde berri hori sarriago bildu dadin.

Iratxe Mierrek azaldu duenez, Batzorde Teknikoak ez du zertan parekide izan behar, eta gonbidapena egin zaio bertan parte hartzeko asmoa duen orori Kontseiluari adieraz diezaion interes hori.

Fernando Fantovak informatu duenaren arabera, badago Batzorde Tekniko hori sortzeko kideen proposamen bat egiteko asmoa, hilabete barru egingo den Batzorde Iraunkor Delegatura eraman ahal izateko.

Azalpen hori egin ondoren, esku hartzeko eta balorazioak egiteko txandari ekin zaio.

“Harresiak Apurtuz”ko Rigoberto Jarak hartu du hitza. Interesgarri iritzi dio Kontseilua arautzen duen Dekretua aldatzeari, baita helburuen zerrenda zabaltzeari ere.

Irse elkarteko Juan Luis Fuentek honako hau azaldu du: hirugarren sektorearen zereginaren inguruan lan egin eta jardunaldi batzuk gauzatzeko aukera, proposamenak jaso ahal izateko.

Gizarte Ongizateko zuzendari Angel Baok esandakoaren arabera, Osoko Bilkuraren eskumenak ez dira ordezkatuko, Batzorde Teknikoan aztertutako informazioa eta egindako lan guztia Osoko Bilkurari helaraziko zaiolako. Honako hau ere gaineratu du: batzorde berri horretako kide guztiek ez dutela zertan izan Osoko Bilkurako kide. Nolanahi ere, jasotako proposamenak bilduta, Batzorde Iraunkorraren hurrengo bileran aztertu eta eztabaidatuko da gaia.

técnico del Consejo a fin de lograr una mayor dinamización del mismo.

Fernando Fantova hace una exposición de los objetivos que se persiguen para este año 2004, así como de los retos que se proponen, entre los que cabe destacar:

- ✓ Modificación del Decreto que regula el propio Consejo.
- ✓ Trabajo acerca del Decreto sobre servicios municipales.
- ✓ Que el Consejo pueda elevar propuestas concretas a partir del informe elaborado por el SIIS.
- ✓ Estudiar la situación laboral en el tercer sector.

Con el fin de llevar a cabo estos retos se propone la creación de una Comisión Técnica Especializada de Estudios y Propuestas. El trabajo que realice esta comisión se llevaría a la Comisión Permanente Delegada y al Pleno del Consejo. Se ha pensado en una comisión de diseño más reducido que la Comisión Permanente para poder reunirse con mayor frecuencia.

Iratxe Mier, explica que la Comisión Técnica que se propone no tiene porqué ser paritaria y se invita a quién quiera participar en ella que haga llegar su interés a la secretaría del Consejo.

Fernando Fantova, informa de la intención de llevar una propuesta de miembros, para crear esta Comisión Técnica, a la reunión que celebrará dentro de un mes de la Comisión Permanente Delegada.

Realizada esta exposición, se abre un turno de intervención y valoraciones.

Toma la palabra Rigoberto Jara, de “Harresiak Apurtuz”, quien opina que le parece interesante un cambio del decreto que regula el Consejo, así como que sería interesante ampliar la lista de objetivos.

Juan Luis Fuente, de Irse, expone la posibilidad de trabajar en el papel del tercer sector y la realización de unas jornadas con todas las entidades para recabar propuestas.

Angel Bao, Director de Bienestar Social, afirma que las competencias del Plenario no se verán suplantadas, ya que toda la información y trabajo realizado por la Comisión Técnica se volcará en el Pleno. Incide, también en que los representantes de esta nueva Comisión no tienen que ser, necesariamente, miembros del Pleno. En cualquier caso, con las propuestas recibidas, se debatirá en la próxima reunión de la Comisión Permanente.

*3. puntua.- 2003ko urtean emandako laguntzei buruzko informazioa.*

*Punto 3.- Información sobre las ayudas concedidas en el año 2003.*

Gizarte Ongizateko zuzendari Ángel Bao Pérezek informazioa eman du 2003ko urteari dagozkion laguntzen banatzeko moduari buruz. Jarraitutasun-irizpideei men eginez esleitu dira, ondokook lehentasunduntzat jota: bazterketa, emakumea, haurrak eta jarduera-eremua dela-eta kopuru-eragin handiagoa dutenak. Eskabideen kopurua aurreko urteetakoa baino handiagoa izan dela gaineratu du.

Ángel Bao Pérez, Director de Bienestar Social, informa sobre cómo se han distribuido las ayudas correspondientes al año 2003. Éstas se han concedido siguiendo criterios de continuidad, dando prioridad a la marginación, mujer, infancia y a aquellos que por su ámbito de actuación tenga un mayor impacto numérico. Indica también que el número de solicitudes ha sido mas voluminoso que en años anteriores

Arabako Hiesaren Aurkako Batzordeko Miguel Ángel Ruiz Diezek iruzkindu du baduela halako irudipen bat lurraldeen araberako diskriminazioa dagoela; izan ere, haren iritziz, hala Bizkaian nola Gipuzkoan Gizarte Zerbitzuak kudeatzen ari dira zenbait erakunderi emandako laguntzen bitartez, eta kudeaketa hori udalei eta diputazioei egokituko litzaieke, Araban gertatzen den bezala.

Miguel Ángel Ruiz Diez, de Comisión Ciudadana Antisida de Álava, comenta que tiene la sensación de que existe una discriminación en cuanto a los territorios ya que, en su opinión, tanto en Bizkaia como en Gipuzkoa se están gestionando Servicios Sociales a través de las ayudas concedidas a diferentes entidades y entiende que esta gestión debiera corresponder a los Ayuntamientos y a las Diputaciones, tal y como sucede en Alava.

Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroa Elkarteko Blanca Estrella Ruiz Ungok eskerrak eman ditu laguntzak izapidetzerakoan izandako gardentasunagatik eta laguntzen ebazpena irailean jakinarazi izanagatik, kobratzea abendura arte gauzatu ez bada ere. Oso garrantzizkotzat jo du laguntzak emateari buruzko ebazpena ahalik eta lasterren jasotzea, garatu beharreko lana behar bezala antolatu ahal izateko.

Blanca Estrella Ruiz Ungo, del Centro de Información del niño y la niña, agradece la transparencia en la tramitación de las ayudas y que se haya comunicado la resolución de las mismas en septiembre, aunque el cobro no se haya efectuado hasta diciembre. Considera muy importante recibir cuanto antes la resolución de concesión para poder organizar adecuadamente el trabajo a desarrollar

EUDELeko Guelber Atxurra Pérezek ohartarazi duenez, udal batek ere ez du laguntzarik jaso. Gaineratu duenez, udalak ez zeuden deialditik kanpo, hasiera batean behintzat, eta jakinaren gainean dago udal batek baino gehiagok ongi egituratutako programak aurkeztu dituela. Programen edukia mugatzea eskatu du, eta balorazioa edukien arabera egitea, programa nork aurkezten duen alde batera utzita.

Guelber Atxurra Pérez, de EUDEL, observa que a ningún ayuntamiento se le ha concedido ayuda. Añade que, en principio, los ayuntamientos no estaban excluidos y le consta que más de un municipio presentó programas bien estructurados. Solicita que se delimite el contenido de los programas y que la valoración se centre en esos contenidos, independientemente de qué entidad los presente.

Gizarte Ongizateko zuzendari Ángel Bao Pérezek iruzkindu du balitekeela Bizkaian eta Gipuzkoan laguntza gehiago eman izana, eskariak ere gehiago direlako, baina ez dela lurraldeen araberako baloraziorik egin.

Ángel Bao Pérez, Director de Bienestar Social, comenta que es posible que en Bizkaia y Gipuzkoa, debido a que el número de solicitudes es mayor, se hayan concedido más subvenciones, pero no se ha hecho una valoración por territorios.

Zuzendaritzaren baliabideak mugatuak direla gaineratu du, eta gizarte-ekimenari eustera bideratzen direla, funtsean.

Incide también, en que los recursos de la Dirección son limitados y van dirigidos, principalmente, a sostener la iniciativa social.

*4. puntua.- Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuen alorrean jarduerak egiteko laguntzei buruzko 2004.erako Dekretuaren aurkezpena eta haren gaineko nahitaezko txostena*

*Punto 4.- Presentación e informe preceptivo sobre el "Decreto de ayudas para la realización de actividades en el área de los servicios sociales en el País Vasco" para el año 2004.*

Gizarte Ongizateko zuzendari Ángel Bao Pérezek azaldu duenez, aurrekontu-luzapena dela eta,

Ángel Bao Pérez, Director de Bienestar Social, expone que debido a la prórroga presupuestaria las ayudas se

laguntzak 2003ko urtean bezala aurkezten dira, ia-ia. Gaineratu duenez, aurten martxoan argitaratuko dira, eta baliteke uztailean laguntzak emateari buruzko ebazpenak bidali ahal izatea.

presentan, prácticamente, en los mismos términos que las del año 2003. Añadió que este año se publicarán en el mes de marzo, por lo tanto es previsible que en el mes de julio se pueda enviar las resoluciones de concesión.

Arabako Foru Aldundiko Patxi Sandinen iritziz, ahalegina egin beharko litzateke jarduera horiek koordinazio handiagoa izan dezaten erakundeen artean.

Patxi Sandín, de la Diputación Foral de Alava, opina que se debiera de hacer un esfuerzo para coordinar más estas actuaciones entre las instituciones.

Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko Juan Carlos Solak azaldu duenez, Konfederazioak ez du baliabide edo errekurtso propiorik sortzen, eta beste elkarte batzuetan gertatzen denaren antzera, finantzaketa-arazoak ditu; ondorioz, ez zaiola bidezko iruditzen jarduerari onetsitako aurrekontuaren %75 bakarrik finantzatzea. Gaineratu duenez, Konfederazio diren aldetik, ezin dute edozein laguntza eskuratu, eta, beraz, %100 finantzatu ahal izatea eskatu du.

Juan Carlos Sola, de la Confederación Coordinadora de Disminuidos Físicos del País Vasco, explica que la Confederación no genera recursos propios y, al igual que ocurre en otras asociaciones, tienen problemas de financiación, por lo tanto no le parece justo que sólo se subvencione el 75% del presupuesto aprobado de la actividad. Añade, así mismo, que como Confederación no pueden acceder a cualquier ayuda, por lo tanto solicita que estas subvenciones puedan financiar hasta el 100%.

FEDEAFESko Patxi Izulainek galdetu ea zergatik eusten zaion esleipen-irizpideen artean "2003. Ezgaitasuna duten pertsonen Urte Europar" delakoari. Honako hau ere proposatu du: lurraldez gaindiko eremua duten laguntzen lerroan, 7. artikuluan, c) idatz-zatian, esaten duenean "…….Administrazio Publikoek edo Instituzio Pribatuek behar bezala kontuan hartuta…" honako hau ere jartzea "edo beste sail batzuek".

Patxi Izulain, de FEDEAFES, pregunta porqué se sigue manteniendo en los criterios de adjudicación el ítem de "2003 Año Europeo de las personas con capacidad". Propone, así mismo, que en las línea de ayudas de ámbito supraterritorial, en su artículo 7, apartado c) donde dice "……. atendidos por otras Administraciones Públicas o Instituciones Privadas" se incluya también "o por otros departamentos"

Gizarte Ongizateko zuzendari Angel Baok hartu du hitza, eta azaldu du ezen, lurraldez gaindikoentzako laguntzen lerroan, jarduerari onartu zaion aurrekontuaren %75 ematea berez datorrela, eta batzuetan, Zuzendaritza horretatik ematen diren laguntzak ez direla erakundeen euskarri bakarra, baina, hala ere, hurrengo deialdietan berriro azter daitekeela gaia, erakundeak jasotzen duen laguntza bakarra Eusko Jaurlaritzarena denean. Nolanahi ere, berriz dio aurten ezin zaiola deialdiari inongo aldaketarik egin, aurrekontu-luzapena dela-eta.

Toma la palabra Ángel Bao, Director de Bienestar Social, quien explica que la concesión del 75% del presupuesto aprobado de la actividad en la línea de ayudas de las Supraterritoriales viene rodada y que, en algunos casos, las ayudas que se conceden desde esta Dirección no es el único sostén para las entidades, pero en posteriores convocatorias sí se puede replantear cuando el único apoyo que reciba una entidad sea el del Gobierno Vasco. De cualquier modo, reincide en que este año no se pueden hacer ningún tipo modificaciones en la convocatoria debido a la prórroga presupuestaria.

Azkenik, aginduen aldeko txostena emantzat jotzen da.

Finalmente, se dan por informadas favorablemente las órdenes.

*5. puntua.- Gizarte-zerbitzuetako profesionalen eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrei buruzko Dekretuaren aurkezpena..*

*Punto 5.- Presentación del Decreto de Derechos y Obligaciones de profesionales y usuarios de los servicios sociales.*

Gizarte Ongizateko zuzendari Ángel Bao Pérezek bileraratu direnei azaldu die eskubide eta betebeharren gutun hori testu ezaguna dela, eta duela 3 edo 4 urte Kontseiluan bertan adostu zela, Aholku Batzorde Juridikoak aurkako txostena eman zuen arren. Aholku Batzorde Juridiko horien gomendioei jarraituz berregin dela esan du, eta laster Jaurlaritzaren Batzordera bidaliko dutela.

Ángel Bao Pérez, Director de Bienestar Social, explica a los presentes que esta carta de derechos y obligaciones es un texto conocido y que, hace 3 o 4 años, ya se consensuó en el propio Consejo, aunque por parte de la Comisión Jurídico Asesora, se emitió un informe desfavorable. Afirma que se ha reelaborado siguiendo las recomendaciones de la COJUA y que, próximamente, se llevará a Consejo de Gobierno

Osasuneko Francisco Villar Colsak adierazi du bere Sailak ere egin duela eskubide eta betebehar sozio-sanitarioei buruzko Gutuna, eta arazo larria planteatu zaiela datuak babesteari buruzko Legea aplikatzeko garaian, zeren eta, informatika-mailan, errazagoa baita informaziora sartzeko gakoak edo klabeak jartzea, baina ez dela halakorik gertatzen informazioa paperezko dokumentuan dagoenean.

Francisco Villar Colsa, de Sanidad, indica que en su departamento también se ha elaborado una Carta de derechos y deberes socio-sanitarios y se les ha planteado un grave problema a la hora de aplicar la Ley de protección de datos, ya que a nivel informático es más fácil poner claves para acceder a la información, pero no ocurre así cuando esta información está en un documento papel.

EUDELeko Guelber Atxurra Pérezek ohartarazi du xedapen iragankor bakarrean honako hau ageri dela “gizarte-zerbitzu eta zentroek urtebeteko epea izango dute euren instalazioak, funtzionamendua eta abar egokitzeko”, baina bere garaian bi urte aipatu zirela.

Toma la palabra Guelber Atxurra Pérez, de EUDEL, observa que en la Disposición Transitoria Única se refleja que “los servicios y centros sociales dispondrán de un plazo de un año para adecuar sus instalaciones, funcionamiento etc.”, pero en su día se habló de dos años.

Ángel Bao Pérezek argudiatu du irizpide juridikoak hilabete batzuk baino ez zituela gomendatzen luzapen horretarako, Zuzendaritza horretatik urtebeteko epeari egokiago iritzi bazitzaion ere.

Ángel Bao Pérez, argumenta que el criterio jurídico recomendaba que la prórroga fuera solamente de unos meses, aunque desde esta Dirección se consideró más razonable una prórroga de un año.

*6. puntua.- Planen aurkezpena:*

- ✓ *Boluntariotzako Euskal Plana*

Gizarte Gaietako sailburuorde Ángel Elías Ortegak planen aurkezpen laburra egin du eta adierazi lehenengo biek euren kontseiluak dituztela jada, eta hirugarrenarena laster eratuko dela.

Gaineratu duenez, Boluntariotzako Euskal Planak 3 urteko iraunaldia du. Planak diru-kopururik jasotzen ez duen arren, Plana onartu duen Jaurlaritza-erabakiak aurrez ikusi du ekintzak eta aurrekontuak zehaztea, Planarekin zerikusia duen eragileetako bakoitzak urtero erabakiko dituenak. Era berean, Boluntariotzaren Behatokia ere sortu dela adierazi du.

- ✓ *Immigrazioari buruzko Euskal Plana*

Itziar Barrenkuak, Immigrazio Zuzendaritzakoak, labur azaldu ditu Immigrazioari buruzko Euskal Planaren zehaztasunak.

Harresiak Apurtuz-ko Rigoberto Jarak bere erakundeak plan horren gainean dituen zalantzen berri eman du. Ez dute arbuiatzen, plan berritzailea baita, eta dituen hutsuneak konponduko direlakoan daude.

- ✓ *Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta partaidetza sozialerako EAEko Plana*

Ángel Eliasek berriro hartu du hitza eta Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako Planari ekin dio. Kontseilu horren eta Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren arteko loturaren berri eman du: azken honetako kide bat Ijitoen Kontseiluko kide ere izango da, ahotsarekin baina botorik gabe; hain zuzen ere, Miren Amilibia, Gizarte

*Punto 6.- Presentación de los planes:*

- ✓ *Plan Vasco del Voluntariado*

Ángel Elías Ortega, Viceconsejero de Asuntos Sociales, hace una breve presentación de los Planes, indicando que los dos primeros cuentan ya con sus propios Consejos y el tercero se constituirá en breve.

Añade que, el Plan Vasco de Voluntariado tiene una vigencia de 3 años. Aunque el Plan no recoge cuantías económicas, en el Acuerdo de Gobierno por el que se aprueba el Plan, sí se prevé la concreción de acciones y presupuestos concretos que cada uno de los agentes implicados en el desarrollo del Plan destinarán anualmente. Así mismo indica que se ha creado un Observatorio del Voluntariado.

- ✓ *Plan Vasco de Inmigración*

Itziar Barrenkua, de la Dirección de Inmigración, expone, de forma sucinta, las características del Plan Vasco de Inmigración.

Rigoberto Jara, de Harresiak Apurtuz, informa de las dudas que su entidad tiene sobre este Plan. No lo rechazan ya que es un Plan innovador, y confían que los vacíos existentes puedan ser subsanados.

- ✓ *Plan para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano en el País Vasco*

Toma de nuevo la palabra Ángel Elías, quien aborda el Plan para la Promoción Integral del Pueblo Gitano. Informa de la unión existente entre este Consejo y el Consejo Vasco de Bienestar Social al contar con un miembro que tendrá voz, pero sin voto. Miren Amilibia

Laneko Diplomatuen eta Gizarte Laguntzaileen Gipuzkoako Elkargo Ofizialekoa, izango da kontseilu horretarako ordezkaria, 2004ko otsailaren 23an eratuko baita, ofizialki.

del Colegio Oficial de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de Gipuzkoa será la representante en dicho Consejo, el cual se constituirá oficialmente el próximo día 23 de febrero de 2004.

- ✓ *Prostituzioaren inguruko Planaren proposamena.*

- ✓ *Propuesta del Plan en el ámbito de la prostitución.*

Gizarte Ongizateko zuzendari Ángel Bao Pérezek Plan hori egiteko proposamenaren berri eman du, Planaren koordinazioa Sail honen eskumenpekoa dela zehaztuz.

Ángel Bao Pérez, Director de Bienestar Social, informa de la propuesta que existe para realización de este Plan siendo competencia de este Departamento la coordinación del mismo.

Emakundek azterlan bat egin duela gaineratu du, eta alor horretako erakundeekin bilera bat egin zela. Informazio hori Eudelekin eta diputazioekin erkatu eta gero, Kontseiluari horren berri emango zaio.

Añade que por parte de Emakunde se ha elaborado un estudio, y también se realizó un encuentro con entidades de este sector. Una vez contrastada esta información con Eudel y las Diputaciones se informará al Consejo.

Hiesaren kontrako Arabako Batzordeko kide Miguel Angel Ruiz Diezek adierazi du konponbidea ez dela bezeroak jazartzea prostituzioa legez kanpo utziz, hala egin badute ere Europako zenbait herrialdetan. Ildo horretatik, prostitutei ahotsa emateko eta beren arteko elkartegintza bultzatzeko eskatu du

Miguel Angel Ruiz Díez, de la Comisión Ciudadana Anti Sida de Alava, indica que el perseguir a los clientes ilegalizando la prostitución, como se ha hecho en determinados países europeos, no es la solución. Solicita, así mismo, dar voz a las prostitutas y potenciar el asociacionismo entre ellas.

*7. puntua.- Izatezko Bikoteen Legearen garapenari eta Izatezko Bikoteen Erregistroaren sorrerari buruzko informazioa.*

*Punto7.- Información sobre el desarrollo de la Ley de parejas de hecho y sobre la creación del Registro de parejas de hecho.*

Gizarte Ongizateko zuzendari Ángel Bao Pérezek Izatezko Bikoteen Erregistroaren funtzionamenduko lehen sei hilabeteei buruzko datuak aurkeztu ditu.

Ángel Bao Pérez, Director de Bienestar Social, presenta los datos de los primeros seis meses de funcionamiento del Registro de Parejas de Hecho.

*8. puntua.- Umeak (0-3 urte) haur-eskoletan dituzten familientzako laguntzen aurkezpena.*

*Punto 8.- Presentación de las ayudas a familias con niños y niñas en escuelas infantiles (0-3)*

Gizarte Ongizateko zuzendariak 2002-2003 ikasturterako eman diren laguntzen berri eskaini du, 3.709.904 € jo baitzuten. Jasotako 6.707 eskarietatik 4.441i eman zaie baiezkoa.

El Director de Bienestar Social, informa sobre las ayudas concedidas para en el curso 2002-2003, cuyo importe ascendió a 3.709.904 €. El número de solicitudes recibidas fueron 6.707, de las cuales se concedieron 4.441.

Joan den urtarrilaren 31n amaitu zen 2003-2004 ikasturtean eskariak aurkezteko epea, eta aurkezteko eskariak aztertzen ari dira orain. Deialdi honek ere, aurrekontu-luzapena dela-eta, aurreko ikasturtean egindakoaren antz handia du.

El plazo para presentar solicitudes en el curso 2003-2004 finalizó el pasado 31 de enero y actualmente están en proceso de revisión. Esta convocatoria, debido también a la prórroga presupuestaria, se ha convocado en términos similares a las del curso anterior.

Bukatzeko esan du laguntza horiek errenta txikiak edo ertainak baina apal xamarrak dituzten familientzako direla, aukera-berdintasuna bermatzeko asmoz.

Concluye diciendo que estas ayudas van dirigidas a familias con rentas bajas o medias bajas para garantizar la igualdad de oportunidades.

FEVASko Pedro Fernández García jaunak eskatu du laguntza horiek ezgaitasuna duten haurrei ere zuzentzea, eta Osasun, Hezkuntza eta Gizarte Ongizate Sailen arteko koordinazioa izatea. Diputazioen ekarpenak baino ez daude egun.

Pedro Fernández García, de FEVAS, solicita que estas ayudas también se dirijan a niños con discapacidad y que exista una coordinación entre los departamentos de Sanidad, Educación y Bienestar Social. Actualmente sólo hay aportaciones por parte de las Diputaciones.

Gizarte Ongizateko zuzendari Ángel Baok adierazi du Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ez duela gai horri buruzko eskumenik, kasu honetan esparru sozio-sanitarioan daudela eskumenak.

Ángel Bao, Director de Bienestar Social, afirma que el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales no tienen competencias en ese tema, en este caso las competencias están dentro del espacio socio-sanitario.

*9. puntua.- Haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateko Legeari buruzko informazioa.*

*Punto 9.- Información sobre la Ley de atención y protección de la Infancia y Adolescencia.*

Ángel Baok azaldu du Aholku Batzorde Juridikoaren baiezko txostenaren zain gaudela egun, Legebiltzarrean izapidetu ahal izateko gero. Legeak konplexutasun teknikoa duenez, Aholku Batzorde Juridikoak atzeratu egin du hari buruzko txostena.

Ángel Bao, expone que actualmente estamos a la espera de que la Comisión Jurídico Asesora emita informe favorable para su posterior tramitación parlamentaria. La complejidad técnica de la Ley hace que desde la COJUA se demore este informe.

Adingabekoaren Informazio Zentroko ordezkari Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak Haurrei buruzko Legea legegintzaldi honetan onartzeko nahia adierazi du.

*“Blanca Estrella Ruiz Ungo, del Centro de Información del niño y la niña, expresa su deseo de que la Ley de Infancia vea la luz en esta legislatura”.*

*10. puntua.- Eskariak eta galderak*

*Punto 10.- Ruegos y preguntas*

Gizarte Ongizateko zuzendariak Kontseiluaren Osoko Bilkurari eskatu dio hitzarmenak egiteko bi proposamen onar ditzala: Gaztelekurekin bata, eta Elikagai Bankuen Euskal Federazioarekin bestea.

El Director de Bienestar Social solicita la aprobación por parte del Pleno del Consejo de dos propuestas de convenio, una con Gazteleku y la otra con la Federación Vasca del Banco de Alimentos.

Gaztelekurekin izenpetu beharreko hitzarmena zuzeneko ekintzatzat joko litzateke; izan ere, Bilboko Udalarekin batera, arriskuan dauden haur eta nerabeei laguntza eman nahi zaie.

En el caso de Gazteleku se consideraría de ámbito de acción directa y junto con el Ayuntamiento de Bilbao se busca el apoyo a la infancia y juventud en situación de riesgo.

Elikagai Bankuen Euskal Federazioarekin izenpetu beharrekoak, aldiz, izoztutako jakiak banatzea du xede, gizarte-beharrizan bati erantzuna emateko.

El convenio con la Federación Vasca del Banco de Alimentos tiene la finalidad de repartir alimentos congelados y cubrir así una cierta necesidad social.

Arabako Foru Aldundiko Patxi Sandínek hitza hartu eta ohartarazi du Gaztelekurekiko hitzarmena ezin dela zuzeneko ekintzatzat jo, lurraldez gaindiko esparrurik ez duelako.

Toma la palabra Patxi Sandín, de la Diputación Foral de Alava, quien repara en el hecho de que el convenio con Gazteleku no puede tener la declaración de acción directa, ya que no tiene un ámbito supraterritorial.

Gipuzkoako Foru Aldundiko José Luis Madrazok proposatu du hitzarmen horri erakundeen arteko izaera ematea.

José Luis Madrazo, de la Diputación Foral de Gipuzkoa, propone que este convenio tuviera un carácter interinstitucional.

FEVASko Pedro Fernándezek Gaztelekurekiko hitzarmenaren aldeko iritzia agertu du, baina bertan Bizkaiko Foru Aldundia ere sartzearen alde mintzatu da.

Pedro Fernández, de FEVAS, expresa su opinión favorable al convenio con Gazteleku, pero instaría a la inclusión en el mismo de la Diputación Foral de Bizkaia.

Bizkaiko Foru Aldundiko Iñigo Pombok azaldu egin du diputazio hori hitzarmeneko partaide ez izateko arrazoia; hala ere, alor horretan dituzten eskumenak erabiliz laguntza emango diotela eta Bilboko Udalak koordinatuko duela.

Iñigo Pombo, de la Diputación Foral de Bizkaia, explica la razón por la que la Diputación no participa en el convenio y el apoyo al programa en el desarrollo de sus competencias en este campo y coordinado con el Ayuntamiento de Bilbao.

Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko Juan Carlos Solak ez

Juan Carlos Sola, de la Confederación Coordinadora de Disminuidos Físicos de la CAPV, no ve la

du hitzarmena egin beharrik ikusten, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak ematen dituen laguntza-aginduen bitartez bideratu daitezkeelako. Nolanahi ere, laguntza horri Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorraren barruan hobeto legokeela iritzi dio.

FEDEAFESko Patxi Izulainek adierazi du Oinarrizko Errentaren eta GGDren (gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera) laguntzetan sartu beharko litzatekeela, hitzarmen berezia egin ordez.

Gizarte Ongizateko zuzendari Ángel Baok iritzi dio jarduerak osagarriak izan daitezkeela, elkarren baztertzaile izan gabe, badagoelako GGD horretara iristen ez den jendea. Errealitateak dio bete gabeko beharrizanak daudela

Azkenik, eskumena eman zaio Sail honi jarduera horiek gauzatu ditzan.

Eta besterik gabe, 13:45ean amaitu da bilkura.

necesidad de realizar un convenio, ya que opina que puede canalizarse a través de las órdenes de ayudas que concede la Dirección de Bienestar Social. En cualquier caso, considera que esta ayuda encajaría mejor dentro de la Comisión Permanente de Inserción.

Patxi Izulain, de FEDEAFES, expone que en lugar de realizar un convenio específico se debieran incluir dentro de las ayudas por Renta Básica e IMI.

Ángel Bao, Director de Bienestar Social, considera que las actuaciones pueden ser complementarias sin ser excluyentes, ya que hay gente que no llega a ese IMI. La realidad dice que hay necesidades que no están cubiertas.

Finalmente, se habilita a este Departamento para llevar a cabo estas actuaciones.

Y sin más trámite, se da por finalizada la sesión a las 13:45 horas.

SECRETARIA
IDAZKARIA

VBº EL PRESIDENTE
PRESIDENTEAREN ONIRITZIA